

ZIARREIKO GUADA

Doinua: "Begiak parrez parrez"

1

Atzo zan egun ona,
gaur biharamona;
hartu egizu, Guadalupe, gaur
danon ZORIONA.

2

Batak bestea dakar,
abuztuak hamar;
neskatotxoa etorri zan ta
Ormak pozez dardar.

3

Ume eder mazala
gaurkoz jaio zala,
Jaunak luzaro bakez ta pozez
zaindu zagizala.

4

Joxe Mielen poza
gainezka bihotza,
biok alkarren pozetan bizi
ta luzaro goza.

5

Ormako baserrian
giro ederrian,
etxe honetan ez da inortxo
izten baztarrian.

6

Auzo, eleiz ta plaza
laguntzen demasa,
euskaldun eta fededun beti
Ormako erraza.

7

Ziortzako praileak
errezatzaileak,
plazako dendan negozioan
Guada saltzaileak.

8

Inor bada gaixorik
edo arazorik,
Guadalupe han agertuko da
badago osorik.

9

Aingerua auzoan
zerbitzu gozoan:
holako batzuk behar litzakez
gaur mundu osoan.

10

Maitasunez esanak
izan dira danak,
eta saritu zaizala eurrez
Jesus Gure Jaunak.